

# memoria 2003



## hospital donostia ospitalea

Osakidetza
Servicio vasco de salud

Hospital Donostia Ospitalea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

# aurkibidea
# *índice*


| | | |
|---|---|---|
| Aurkezpena | *Presentación* | **2** |
| Donostia Ospitalea | *Hospital Donostia* | **3** |
| Eginkizuna | *Misión* | **4** |
| Osakidetza | *Osakidetza* | **5** |
| Datu Globalak | *Datos globales* | **6** |
| Jarduera asistentziala | *Actividad asistencial* | **6** |
| Oinarrizko adierazleak zerbitzuka | *Indicadores básicos por servicios* | **7** |
| Prozesuen oinarrizko adierazleak | *Indicadores básicos por procesos* | **8** |
| Donostia Ospitaleko Plantilla | *Plantilla Hospital Donostia* | **10** |
| Datu ekonomikoak | *Datos económicos* | **12** |
| Ikerketa | *Investigación* | **13** |
| Prestakuntza | *Formación* | **14** |
| Kalitatea | *Calidad* | **15** |
| Komunikazioa | *Comunicación* | **16** |
| Informazio Sistemak | *Sistemas de información* | **17** |

# aurkezpena

2003an beste urrats bat egin genuen gure zentroa GUZTIONTZAKO OSPITALE HOBEA izan dadin lortzeko helburuan. Ekitaldi hori funtsezkoa izan zen, gaur egungo fase berriari aurre egingo zion Gerentzia eta Zuzendaritza Taldea berritzeari ekin zitzaion.

Etorkizunari berme guztiekin aurre egiteko, hainbat norabidetan egin zen lana. Batetik, 2004-2008 aldia aztertuko zuen Plan Estrategikoa landu zen, baita ospitaleko profesionalen poztasun-inkestatik ondorioztatzen diren alderdiak bilduko zituen Komunikazio Plana ere. Plan horien ondorioz, hobekuntza-taldeak osatu dira, eta talde horietan ia berrehun profesionalek hartu dute parte. Haatik, proiektu horiek eta epe ertain eta luzera planteatutako beste batzuek ez zuten eragotzi joan den urtean epe laburrerako ekintzak egitea, hala nola larrialdi orokorrak bat egitea, hainbat zerbitzutan kalitateko ISO ziurtagiria lortzea, ospitaleratze-plantak berritzea eta egokitzea, Errehabilitazioko Kanpo Kontsultak birmoldatzeko lanei hasiera ematea, edo koadro elektriko orokor berria abiaraztea.

Horrela, hainbat erronka abiarazi ziren, eta horien emaitzak datozen urteetan ikusi ahal izango ditugu.

Gaur egungo eta etorkizuneko ahalegin horiek guztiak geure nortasuna lortzera bideratu beharko dira, baita Donostia Ospitalea gipuzkoar guztiei prestigioa emango dien errealitate bihurtzera ere.

# presentación

*2003 ha supuesto un nuevo paso en el objetivo de conseguir que nuestro centro sea EL MEJOR HOSPITAL PARA TODOS. Un ejercicio clave en el que se inició una renovación en la Gerencia y en el Equipo Directivo para afrontar la nueva fase en la que nos encontramos.*

*Para abordar el futuro con garantías, se trabajó en diferentes direcciones. Por un lado en la elaboración de un Plan Estratégico que abordase el período 2004-2008 y un Plan de Comunicación que recogiese los aspectos más relevantes que se desprenden de la encuesta de satisfacción de los profesionales del hospital. Sus resultados han motivado la creación de grupos de mejora en los que participan cerca de dos centenares de profesionales.*

*Éstos y otros proyectos planteados a medio y largo plazo, no impidieron que a lo largo del pasado año también se acometiesen acciones más inmediatas, como la unificación de las urgencias generales o la consecución del certificado ISO de calidad en diversos servicios, así como la reforma y acondicionamiento de plantas de hospitalización, el inicio de la remodelación de las Consultas Externas de Rehabilitación o el nuevo cuadro eléctrico general.*

*De esta manera, se han afrontado retos cuyos resultados iremos observando a lo largo de los próximos años. Todos estos esfuerzos presentes y los futuros deben encaminarse a conseguir una identidad propia, pero también a que el Hospital Donostia sea una realidad que prestigie a todos los guipuzcoanos.*



# donostia ospitalea

Donostia Ospitalea Osakidetzaren osasun-sarearen barruan dago, eta 2001eko otsailaren 14an eratu zen. Era horretan, ordu arte Zorroaga gainean zeuden ospitaleak batean biltzeko helburuz 1993. urtean abiarazitako prozesu bat amaitu zen.

Donostia Ospitaleak osasun-erantzukizun bikoitza du: eskualdeko ospitale gisa duen erantzukizuna, eta ospitale tertziario gisa dagokiona. Bere ingurunea eta Osakidetzak esleitzen dizkion osasun-erantzukizunak kontuan izanik, Donostia Ospitaleak Euskadiko populazio handi bati egin behar dio zerbitzu: **ospitale tertziario gisa 701.136 biztanleren gaineko erantzukizuna du, eta eskualdeko ospitale gisa 339.257 biztanleren gainekoa.**

# el hospital donostia

*El Hospital Donostia pertenece a la red sanitaria de Osakidetza/servicio vasco de salud y se constituyó el 14 de febrero de 2001, lo que supuso la culminación de un proceso iniciado en 1993 con el objetivo de fusionar los hospitales existentes entonces en el Alto de Zorroaga.*

*El Hospital Donostia tiene una doble responsabilidad sanitaria: como hospital comarcal y como hospital terciario. Atendiendo a su enclave y a las responsabilidades sanitarias asignadas por Osakidetza, el Hospital Donostia toma como referente una u otra población de Euskadi: el área asignada al Hospital Donostia* ***como hospital terciario le asigna responsabilidades sobre 701.136 habitantes y como hospital comarcal sobre 339.257 habitantes.***





# eginkizuna

Donostia Ospitalea hirugarren mailako izaera duen osasun-zentro bat da eta bere helburu nagusia asistentzia orokorra eta kalitaterik gorenekoa eskaintzea da. Horretarako kualifikazio handiko ekipoa du, 3.000 profesionalek eta bitarteko teknologiko aurreratuenek osatua.

Asistentzia izaeraren gain, irakaskuntza eta ikerkuntzaren alorrean zenbait eginkizun garrantzitsu betetzen ditu. Gure zentroa etengabeko hobekuntzarako prozesu batekin konprometitua dago, bertan dauden bitartean pazienteek arretarik eta zainketarik onenak jaso ditzaten. Hitz batean esateko, bezeroa sistemaren erdi-erdian kokatzeko.

Profesional guztien inplikazio eta dedikazioarekin eta Kalitateko metodologia baten aplikazioarekin bakarrik lor daitezke helburu horiek.

Ospitaleak espezialitate mediko, kirurgiko eta zerbitzu orokor guztiak ditu. Halaber, espezialitate gehienetan irakaskuntzarako akreditazioa du.

Era berean, beste ospitale batzuekin nazioarteko lankidetza-hitzarmenak ezarriak ditu, eta sarri askotan, mundu osoko espezialistek saio kliniko eta kirurgikoak eskaintzen dituzte teknikarik aurreratuenak aurkezteko.



# misión

*El Hospital Donostia es un centro sanitario de carácter terciario cuyo objetivo esencial es ofrecer una asistencia integral y de la más alta calidad. Cuenta para ello con un equipo altamente cualificado de más de 3.000 profesionales y los medios tecnológicos más avanzados.*

*Además de su carácter asistencial, tiene importantes funciones docentes y de investigación.*

*Nuestro centro está también comprometido en un proceso de mejora continua para que los pacientes reciban la mejor atención y cuidados durante su estancia. En una palabra, situar al cliente en el centro del sistema.*

*Estos objetivos sólo se alcanzan con la implicación y dedicación de todos los profesionales y la aplicación de una metodología de Calidad.*

*El hospital cuenta con todas las especialidades médicas, quirúrgicas y servicios generales. Así mismo, posee acreditación docente en la mayoría de las especialidades.*

*También tiene establecidos convenios internacionales de colaboración con otros hospitales y frecuentemente especialistas de todo el mundo ofrecen sesiones clínicas y quirúrgicas para presentar las técnicas más avanzadas.*

# osakidetza



Osakidetza 1980an sortu zen Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiadun izaerarekin, eta 1998ko urtarrilaren 1ean Zuzenbide pribatu Ente Publiko bihurtu zen.

Gaur egun 20 ospitale ditu, akutuentzako 12, egonaldi ertain eta luzeko 4, eta beste 4 ospitale psikiatriko; horietaz gain, lehen mailako atentzioko 302 zentro eta ospitalez kanpoko osasun mentaleko 54 zentro ere baditu.

Osakidetzaren eginbeharra da biztanleen osasun-beharrak asetzeko beharrezkoak diren zerbitzu publikoez hornitzea; euskal sistema sanitarioa gailentzen duten uniber-tsaltasun, berdintasun, elkartasun, eraginkortasun eta kalitateko printzipioen baitan.

Osakidetzaren helburu estrategiko nagusia bezero-pazienteentzat asistentzia sanitarioko zerbitzu integratu, kalitatezko, pertsonalizatu eta bizkorra eskaintzea da, osasun-beharrizanei erantzungo diena.

Beste zenbait helburu ere baditu: bere erakundeen kudeaketa-eredua erabateko kalitatearen filosofia eta sistemetan oinarritzea eta etengabeko hobekuntza sartzea, zerbitzu sanitarioen hornikuntza eraginkortasunez eta efizientziaz egiten dela bermatzeko. Era berean, hainbat antolamendu-mailatan ekonomia eta kudeaketako autonomia lortu nahi du, eta teknologia eta ikerkuntzaren garapena Osakidetzako sarean bultzatu.

# osakidetza

*Osakidetza se creó en 1980 como Organismo Autónomo del Gobierno Vasco y el 1 de enero de 1998 se constituyó en Ente Público de derecho Privado.*

*En la actualidad, cuenta con 20 hospitales, 12 de ellos para agudos, 4 de media y largas estancias y otros 4 psiquiátricos. Dispone también de 302 centros de atención primaria y 54 centros de salud mental extrahospitalaria.*

*Tiene como misión proveer los servicios públicos necesarios para satisfacer las necesidades de salud de la población, bajo los principios de universalidad, equidad, solidaridad, eficiencia y calidad, que presiden el sistéma sanitario vasco.*

*El principal objetivo estratégico de Osakidetza es proporcionar al cliente/paciente un servicio de asistencia sanitaria integrado, de calidad, personalizado y ágil, que responda a sus necesidades de salud.*

*Otros objetivos son también gestionar sus diferentes organizaciones bajo un modelo basado en la filosofía y en los sistemas de calidad total e introducir la mejora continua como garantía de eficacia y eficiencia en la provisión de servicios sanitarios, lograr una autonomía económica y de gestión en los distintos niveles de la organización y potenciar el desarrollo de la tecnología y de la investigación dentro de la red.*

# datu globalak
# datos globales



## jarduera asistentziala
## actividad asistencial

ZERBITZUKA POR SERVICIOS



| | 2003 | |
|---|---|---|
| Oheak | 1.148 | *Camas* |
| Programatutako ingresuak | 17.428 | *Ingresos programados* |
| Ingresu urgenteak | 30.256 | *Ingresos urgentes* |
| Ingresuak guztira | 47.684 | *Ingresos totales* |
| Egonaldiak | 360.926 | *Estancias* |
| Batez besteko egon. (akutuak) | 6,91 | *Estancia media (agudos)* |
| Batez besteko egon. (ertain/luze) | 19,81 | *Estancia media (larga y media)* |
| Oper. aurreko batez besteko egon. | 0,94 | *Estancia media preoperatoria* |
| Okupazio-indizea (%) | 86,10 | *Indice de ocupación (%)* |
| Errotazio-indizea (%) | 41,54 | *Indice de rotación (%)* |

| **Kirugía** | | ***Cirugía*** |
|---|---|---|
| Operazio gelak | 26 | *Quirófanos* |
| Programatutako interbentzioak | 12.172 | *Operaciones programadas* |
| Interbentzio urgenteak | 3.827 | *Operaciones urgentes* |
| Kirugia txikia | 2.871 | *Cirugía menor* |
| Autohitzarmena | 3.711 | *Autoconcertación* |
| Interbentzioak guztira | 22.581 | *Total intervenciones* |
| **Ospitaleko kontsultak** | **274.000** | ***Consultas hospitalarias*** |
| Lehenengo kontsultak | 57.503 | *Primeras consultas* |
| Hurrengo kontsultak | 216.497 | *Consultas sucesivas* |
| Lehen/hurrengo kontsultak | 3,76 | *Sucesivas/primeras* |
| **Ospitalez kanpoko kontsultak** | **328.894** | ***Consultas extrahospitalarias*** |
| Lehenengo kontsultak | 127.717 | *Primeras consultas* |
| Hurrengo kontsultak | 201.177 | *Consultas sucesivas* |
| Lehen/hurrengo kontsultak | 1,58 | *Sucesivas/primeras* |
| **Kontsultak guztira** | **602.894** | ***Total consultas*** |
| Lehenengo kontsultak | 185.220 | *Primeras consultas* |
| Hurrengo kontsultak | 417.674 | *Consultas sucesivas* |
| Lehen/hurrengo kontsultak | 2,26 | *Sucesivas/primeras* |

| | 2003 | |
|---|---|---|
| **Urgentziak** | | ***Urgencias*** |
| Orokorrak | 100.599 | *Generales* |
| Pediatria | 32.001 | *Pediatría* |
| Tokoginekología | 11.684 | *Tocoginecología* |
| Psikiatría | 2.628 | *Psiquiatría* |
| Urgentziak guztira | 146.912 | *Urgencias totales* |
| Urgentzien batez best. eguneko | 402,50 | *Media urgencias/día* |
| Urgentzien presioa | 62,60 | *Presión de urgencias* |

| **Erditzeak** | | ***Partos*** |
|---|---|---|
| Zesareak | 822 | *Cesáreas* |
| Guztira | 4.558 | *Total* |

| **Ospitalizazioaren alternatibak** | | ***Alternativas a la hospitalización*** |
|---|---|---|
| Eguneko Ospitale Medikoa | 20.140 | *Hospital de día médico* |
| Eguneko Ospitale Kirurgikoa | 6.410 | *Hospital de día quirúrgico* |
| Egonaldi Laburreko Unitatea | 4.552 | *Unidad de corta estancia* |
| Etxeko Ospitalizazioa | 619 | *Hospitalización a domicilio* |
| Zainketa Aringarriak | 353 | *Cuidados Paliativos* |

# oinarrizko adierazle zerbitzuak
# indicadores básicos por servicios

| **Akutuak** | Altak / Altas | % | BE / EM | Pisua / Peso | Konpl. / Compl. | *Agudos* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Barne medikuntza | 3.789 | 8,4 | 9,16 | 1,5492 | 5.870 | *Med. Interna* |
| Kardiologia | 2.594 | 5,75 | 8,04 | 1,4907 | 3.867 | *Cardiología* |
| Aparatu Digestiboa | 1.554 | 3,44 | 11,61 | 1,3641 | 2.120 | *Digestivo* |
| Endokrinologia | 150 | 0,33 | 8,03 | 1,2085 | 181 | *Endocrinología* |
| Nefrologia | 280 | 0,62 | 11,85 | 2,176 | 609 | *Nefrología* |
| Pneumologia | 1.543 | 3,42 | 7,94 | 1,716 | 2.648 | *Neumología* |
| Neurologia | 1.563 | 3,46 | 8,63 | 1,6564 | 2.589 | *Neurología* |
| Reumatologia | 447 | 0,99 | 6,24 | 1,0542 | 471 | *Reumatología* |
| Hematologia | 666 | 1,48 | 15,06 | 3,016 | 2.009 | *Hematología* |
| Psikiatria | 1.352 | 3,0 | 17,80 | 1,0719 | 1.449 | *Psiquiatria* |
| Onkologia Medikoa | 1.109 | 2,46 | 11,44 | 1,8543 | 2.056 | *Oncología Médica* |
| Infekzio Unitatea | 668 | 1,48 | 10,11 | 2,2097 | 1.476 | *Unidad Infecciosos* |
| Onkol. erradioterapikoa | 199 | 0,44 | 13,00 | 2,1037 | 419 | *Oncología Radioterapia* |
| Kirugia orokorra | 4.023 | 8,92 | 6,93 | 1,5638 | 6.291 | *Cir. General* |
| Aurp-masail. kirugia | 396 | 0,88 | 4,22 | 1,3075 | 518 | *Cir. Maxilofacial* |
| Toraxeko kirugia | 478 | 1,06 | 6,26 | 2,2453 | 1.073 | *Cir. Torácica* |
| Hodietako kirugia | 894 | 1,98 | 8,20 | 2,6426 | 2.362 | *Cir. Vascular* |
| Kirugia Plastikoa | 513 | 1,14 | 5,49 | 1.3945 | 715 | *Cir. Plástica* |
| Neurokirugia | 911 | 2,02 | 11,20 | 2,9572 | 2.694 | *Neurocirugía* |
| Oftalmologia | 3.430 | 7,6 | 0,33 | 0,8465 | 2.904 | *Oftalmología* |
| Otorrinolaringologia | 1.283 | 2,84 | 2,37 | 1,0382 | 1.332 | *O.R.L* |
| Traumatologia | 3.465 | 7,68 | 8,53 | 1,7986 | 6.232 | *Traumatología* |
| Urologia | 1.691 | 3,75 | 7,28 | 1,2114 | 2.048 | *Urología* |
| Errad. interbenzionista | 466 | 1,03 | 1,09 | 1,3832 | 645 | *Radiología Intervenc.* |
| UCI | 697 | 1,55 | 5,70 | 4,5741 | 3.188 | *UCI* |
| Minaren unitatea | 58 | 0,13 | 0,71 | 1,4969 | 87 | *Unidad Dolor* |
| Pediatria | 1.441 | 3,19 | 5,47 | 1,0398 | 1.498 | *Pediatría* |
| Jaioberriak | 628 | 1,39 | 13,43 | 2,4036 | 1.509 | *Unidad Neonatología* |
| Haurrentzako kirugia | 604 | 1,34 | 2,09 | 0,9756 | 589 | *Cir. Pediátrica* |
| Tokoginekologia | 8.217 | 18,22 | 3,36 | 0,6872 | 5.647 | *Tocoginecología* |

| **Egonaldi Ertain eta luzeak** | | | | | | ***Media y Larga Estancia*** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Barne medikuntza | 1.808 | 73,77 | 14,92 | 1,7652 | 3.192 | *Med. Interna* |
| Pneumologia | 296 | 12,08 | 18,44 | 2,0973 | 621 | *Neumología* |
| Errehabilitazioa | 347 | 14,16 | 49,93 | 1,3471 | 467 | *Rehabilitación* |

# prozesuen oinarrizko adierazleak
# indicadores básicos por procesos

| **Akutuak** | | Altak<br>Altas | % | BE<br>EM | Pisua<br>Peso | Konpl.<br>Conpl. | ***Agudos*** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **373** | Erditze baginal ez konplikatua | 2.865 | 6,35 | 2,59 | 0,5474 | 1.568 | *Parto SCC* |
| **39** | Kristalinoaren gaineko prozed., gorputz beirakararen erauzket. edo gabe | 2.704 | 5,99 | 0,03 | 0,8301 | 2.245 | *Procedimientos sobre cristalino con o sin vitrectomía* |
| **541** | Arnas trast., infekzioak, bronkitisa eta asma izan ezik, KK Nagusiarekin. | 872 | 1,93 | 10,53 | 2,3654 | 2.063 | *Trastornos respiratorios excepto infecciones, bronquitis, asma con CC mayor* |
| **372** | Erditze baginal konplikatua | 855 | 1,9 | 3,51 | 0,7167 | 613 | *Parto con CC* |
| **371** | Erditzea KKrik gabe | 725 | 1,61 | 6,33 | 0,833 | 604 | *Cesárea SCC* |
| **430** | Psikosia | 682 | 1,51 | 21,66 | 1,2703 | 866 | *Psicosis* |
| **127** | Bihotzeko gutxiegitazuna eta schok-a | 646 | 1,43 | 9,24 | 1,4851 | 959 | *Insuficiencia cardíaca y shock* |
| **143** | Bularraldeko mina | 643 | 1,43 | 5,01 | 0,583 | 375 | *Dolor Torácico* |
| **359** | Umetok. eta anexuen gaineko prozed., in situ kartz. edota prozesu gaizt. KKrik gabe | 626 | 1,39 | 4,08 | 1,1034 | 691 | *Procedimientos sobre útero y anejos por ca. in situ y proceso no maligno SCC* |
| **381** | Haurgaltzea dilatazioarekin eta legratuarekin, aspirazioarekin edo histerotomiarekin | 583 | 1,29 | 0,85 | 0,4915 | 287 | *Aborto con dilatación y legrado, aspiración o histerotomía* |
| **243** | Bizkarreko mediku arazoak | 432 | 0,96 | 6,25 | 0,7697 | 333 | *Problemas médicos de la espalda* |
| **55** | Belarri, sudur, aho eta eztarriaren gaineko hainbat prozedura | 431 | 0,96 | 0,73 | 0,6786 | 292 | *Procedimientos misceláneos sobre oído, nariz, boca y garganta* |
| **14** | Trastorno zerebronaskular espezifikoak, istripu iskemiko iragankora izan ezik. | 427 | 0,95 | 10,11 | 2,0507 | 876 | *Trastornos cerebrovasculares específicos excepto AIT* |
| **410** | Kimioterapia | 423 | 0,94 | 4,35 | 1,0682 | 452 | *Quimioterapia* |
| **222** | Belaunaren gaineko prozedurak, KKrik gabe. | 392 | 0,87 | 1,58 | 1,0769 | 422 | *Procedimientos sobre la rodilla SCC* |
| **88** | Biriketako butxaketazko gaixotazun kronikoa. | 363 | 0,8 | 8,87 | 1,1655 | 423 | *Enfermedad pulmonar obstructiva crónica* |
| **167** | Apendize-erauzketa edo apendizektomia, konpl. diagnostiko nagusirik gabe, KKrik gabe. | 343 | 0,76 | 3,41 | 0,8757 | 300 | *Apendicectomía sin diagnóstico principal complicado SCC* |
| **162** | Iztond. eta izterr. herniaren gain. proz. Adina >17, KKrik gabe | 332 | 0,74 | 1,93 | 0,662 | 220 | *Proced. sobre hernia inguinal y crural, edad >17, SCC* |
| **139** | Bihotzeko arritmiak eta kondukzioaren trastornoak, KKrik gabe | 330 | 0,73 | 5,54 | 0,7345 | 242 | *Arritmias cardiacas y trastornos de conducción SCC* |
| **183** | Esofagitisa, gastroent. eta beste hainbat trastorno digestibo. Adina >17, KKrik gabe. | 322 | 0,71 | 7,34 | 0,7473 | 241 | *Esofagitis, gastroenteritis y trastornos digest. misceláneos edad >17 SCC* |
| **814** | Gastroenteritis ez-bakt. eta sabelaldeko mina. Adina >17 KKrik gabe | 287 | 0,64 | 4,92 | 0,4302 | 123 | *Gastroenteritis no bact. y dolor abdominal. edad >17 SCC* |
| **324** | Gernu-kalkuluak, KKrik gabe | 287 | 0,64 | 3,89 | 0,3884 | 111 | *Cálculos urinarios SCC* |
| **101** | Arnas aparatuko beste diagnostiko batzuk, KKarekin | 283 | 0,63 | 9,08 | 1,002 | 284 | *Otros diagnósticos de aparato respiratorio con CC* |
| **818** | Aldaka-aldaketa, konplikazioengatik izan ezik | 282 | 0,63 | 17,38 | 3,7557 | 1.059 | *Sustitución de cadera excepto por complicaciones* |
| **116** | Bihotzeko pausomarkagailu iraunkor baten ezarp. miokardioko infartu akuturik, bihotzeko hutsegiterik edo shock-ik gabe | 281 | 0,62 | 5,37 | 3,7176 | 1.045 | *Otras implantaciones de marcapasos cardíaco permanente sin infarto agudo de miocardio, fallo cardíaco o shock* |

| Egonaldi Ertain eta luzeak | | Altak<br>Altas | % | BE<br>EM | Pisua<br>Peso | Konpl.<br>Conpl. | *Media y larga estancia* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **541** | Arnas trastornoak, infekzioak, bronkitisa eta asma izan ezik, KK Nagusiarekin. | 476 | 19,42 | 16,48 | 2,3654 | 1.126 | *Trastornos respiratorios excepto infecciones, bronquitis, asma con CC mayor* |
| **462** | Errehabilitazioa | 329 | 13,42 | 48,15 | 1,3887 | 457 | *Rehabilitación* |
| **101** | Arnas aparatuko beste diagnostiko batzuk, KKrekin | 143 | 5,83 | 13,59 | 1,002 | 143 | *Otros diagnósticos de aparato respiratorio con CC* |
| **127** | Bihotzeko gutxiegitazuna eta schok-a | 140 | 5,71 | 12,01 | 1,4851 | 208 | *Insuficiencia cardíaca y shock* |
| **544** | Bihotzeko gutxiegitazun kongestiboa eta bihotzeko arritmia, KK Nagusiarekin | 126 | 5,14 | 13,25 | 3,4787 | 438 | *ICC y arritmia cardíaca con CC mayor* |
| **88** | Biriketako butxaketazko gaixotazun kronikoa. | 108 | 4,41 | 16,50 | 1,1655 | 126 | *Enfermedad pulmonar obstructiva crónica* |
| **102** | Arnas aparatuko beste diagnostiko batzuk, KKrik gabe | 77 | 3,14 | 12,38 | 0,6215 | 48 | *Otros diagnósticos de aparato resp. SCC* |
| **467** | Osasun-egoeran eragina duten beste faktore batzuk | 70 | 2,86 | 32,43 | 0,3867 | 27 | *Otros factores que influyen en el estado de la salud* |
| **89** | Neum. simplea eta pleuritis adina >17 KKrekin | 46 | 1,88 | 15,74 | 1,3692 | 63 | *Neumonía simple y pleuritis edad >17 con CC* |
| **540** | Arnas infekzio eta inflamazioak, KK Nagusiarekin | 36 | 1,47 | 15,50 | 3,5462 | 128 | *Infecciones e inflamaciones respiratorias con CC mayor* |
| **584** | Septizemia KK Nagusiarekin | 34 | 1,39 | 16,68 | 3,8232 | 130 | *Septicemia con CC mayor* |
| **569** | Giltzurruneko eta gernibideetako trast. giltzurruneko gutxiegitasuna izan ezik, KK Nagusiarekin | 31 | 1,26 | 18,94 | 1,6963 | 53 | *Infecciones de riñon y tracto urinario excepto insuficiencia renal con CC mayor* |
| **320** | Giltzurruneko eta gernubideetako infekzioak, adina >17, KKarekin | 28 | 1,14 | 13,46 | 1,0591 | 30 | *Infecciones de riñon y tracto urinario edad >17 con CC* |
| **395** | Hematien trastornoak. adina >17 | 26 | 1,06 | 11,69 | 1,0591 | 28 | *Trastornos de los hematíes edad >17* |
| **182** | Esofagitisa, gastroenteritisa eta beste hainbat trastorno digestibo. Adina >17, KKrekin. | 25 | 1,02 | 14,68 | 1,12 | 28 | *Esofagitis, gastroenteritis y trastornos digest.misceláneos edad >17 con CC* |
| **416** | Septizemia, adina >17 | 24 | 0,98 | 11,46 | 1,7323 | 42 | *Septicemia, edad >17* |
| **90** | Pneumonia simplea eta pleuritisa adina >17, KKrik gabe | 23 | 0,94 | 13,17 | 0,8301 | 19 | *Neumonía simple y pleuritis edad >17 SCC* |
| **87** | Biriketako edema eta arnas gutxiegitasuna | 22 | 0,9 | 11,09 | 1,5423 | 34 | *Edema pulmonar e insuficiencia respiratoria* |
| **321** | Giltzurruneko eta gernubideetako infekzioak, adina >17 KKrik gabe | 20 | 0,82 | 13,05 | 0,6596 | 13 | *Infecciones de riñon y tracto urinario edad >17 SCC* |
| **14** | Trastorno zerebronaskular espezifikoak, istripu iskemiko iragankora izan ezik. | 20 | 0,82 | 14,45 | 2,0507 | 41 | *Trastornos cerebrovasculares específicos excepto AIT* |
| **461** | Prozedura kirurgikoa, osasun-zerbitzuetako beste arreman baten diagnostikoarekin. | 20 | 0,82 | 79,60 | 0,6861 | 14 | *Procedimiento quirúrgico con dx. de otro contacto con serv. sanitarios* |
| **533** | Nerbio-sistemako beste trastorno batzuk, salbu III, konbultsioak eta buruko mina, KK Nagusiarekin | 19 | 0,78 | 17,68 | 4,6815 | 89 | *Otros tr. sistema nervioso exp. ait,convulsiones y cefalea con CC* |
| **566** | Tr. endokrino, nutriz. eta metab., ahoratzearen trast. edota fibrosi kistikoak izan ezik, KK nag | 18 | 0,73 | 19,33 | 2,538 | 46 | *Tr. endocrino, nutricional y metabólico exp. tr. de ingesta o FC con CCM* |
| **172** | Neoplasia gaizto diagnostikoa, KKarekin. | 15 | 0,61 | 11,07 | 2,1112 | 32 | *Neoplasia maligna digestiva con CC* |
| **294** | Diabetesa, adina >35 | 15 | 0,61 | 15,60 | 0,9527 | 14 | *Diabetes edad >35* |

# donostia ospitaleko plantilla
# plantilla hospital donostia

| kategoria arabera | | por categoría |
|---|---|---|
| Gizarte-laguntzailea | 4 | *Asistente Social* |
| Erizaintzako laguntzailea | 725 | *Auxiliar enfermería* |
| Zeladoreak | 163 | *Celador* |
| Zuzendariak | 6 | *Dirección* |
| Erizainak | 985 | *DUE* |
| Fakultatiboak | 581 | *Facultativo* |
| Fisioterapeutak | 31 | *Fisioterapeuta* |
| Administrazio-funtzioa | 269 | *Función Administrativa* |
| Ostalaritza eta zerbitzu orokorrak | 245 | *Hostelería y s. generales* |
| Mantentze-lanak | 66 | *Mantenimiento* |
| Emaginak | 34 | *Matrona* |
| Mir | 97 | *Mir* |
| Teknikari espezialistak | 88 | *Técnico especialista* |
| Goi-mailako teknikariak | 13 | *Técnico superior* |
| Terapeuta okupazionala | 4 | *Terapeuta ocupacional* |
| **plantilla guztira** | **3.311** | ***Total plantilla*** |






755
2.556
20-29
urte
años
121
30-39
urte
años
537
40-49
urte
años
1.390
50-59
urte
años
1.072
> 60
urte
años
191

# datu ekonomikoak

# datos económicos

## zenbatekoak eurotan / importes en euros

| | 2003 | |
|---|---|---|
| **Gastuak** | 225.565.975 | **Gastos** |
| Ustiapen-gastuak | 225.238.591 | Explotación |
| Finantza-gastuak | 1.311 | Financieros |
| Aparteko gastuak | 326.073 | Extraordinarios |
| **Sarrerak** | 221.106.790 | **Ingresos** |
| Ustiapen-sarrerak | 220.820.042 | Explotación |
| Finantza-sarrerak | 265.439 | Financieros |
| Ohiz kanpoko sarrerak | 21.309 | Extraordinarios |

## inbertsioak eurotan / inversiones en euros

| | | |
|---|---|---|
| **Propioak** | 1.554.018,77 | **Propias** |
| **Estrategikoak** | 5.124.787,49 | **Estratégicas** |
| **Informatika** | 683.060,31 | **Informática** |
| **Guztira** | **7.361.866,57** | **Total** |



# ikerketa

Donostia Ospitalean egiten den ikerketa, batez ere, klinikoa edo oinarrizkoaren eta klinikoaren arteko “zubi” erakoa da, eta neurri apalago batean, epidemiologikoa.

Ikerketa Unitatea bi eremutan egituratua dago: Epidemiologia Klinikoa eta Esperimentala.

Epidemiologia Klinikoko Unitatearen helburu orokorra jarduera klinikoari buruzko ikerketa da: erabaki klinikoen eraginkortasuna eta baliagarritasuna. KUak aholkularitza metodologikoa eskaintzen die ikerketa-proiektuei eta ikerketaren kudeaketan parte hartzen du, eta halaber, ikerketako pertsonalari buruzko datubaseak dauzka. Tumoreen erregistroaren, Ikerketa Batzordeko idazkaritzaren eta CEIC izenekoaren egoitza ere bada, eta horretaz gain, Gipuzkoako EOMaren mugimendua sustatu eta bultzatzen du.

Unitate Esperimentalak aholkularitza eta laguntza eskaintzen du ikerketa nahiz irakaskuntza arloko proiektuak diseinatu, finantzatu edo prestatzeko orduan, eta halaber, pazienteak ez baizik beren laginak edo haien ordezko erreaktibo biologikoak edo modelo artifizialak erabiltzen dituzten prozeduretako jarduerak antolatzeko orduan.

# investigación

*La investigación que se realiza en el Hospital Donostia es sobre todo clínica o de tipo "puente" entre la básica y la clínica, y en menor medida, epidemiológica.*

*La Unidad de Investigación está estructurada en dos áreas: Epidemiología Clínica y Experimental.*

*La Unidad de Epidemiología Clínica tiene como objetivo genérico la investigación sobre la práctica clínica: la efectividad y eficiencia de las decisiones clínicas. La UEC aporta asesoría metodológica a los proyectos de investigación y participa en la gestión de la investigación manteniendo bases de datos sobre personal investigador, proyectos y material inventariable. Es también la sede del registro de tumores, de la secretaría de la Comisión de Investigación y del CEIC, además de promocionar e impulsar el movimiento de la MBE en Gipuzkoa.*

*La Unidad Experimental asesora y colabora en el diseño, financiación o realización de proyectos de investigación, docencia y otras actividades cuyos procedimientos no utilizan pacientes sino sus muestras o reactivos biológicos sustitutivos o modelos artificiales.*



# prestakuntza

Ikastaro edo mintegi jakin batzuetan ez ezik, eguneroko praktikarekin lotzen diren jarduerak antolatzean datza Donostia Ospitaleko etengabeko prestakuntza.

Bestalde, gradu-ondoko irakaskuntza garrantzi handikoa da etorkizunean espezialitate bat garatzeko edo lanbidearen funtsezko alderdietan sakontzeko. Ikasturte bakoitzean ehun mediko egoiliarrek baino gehiagok egiten dute bere gradu-ondoko prestakuntza Donostia Ospitalean. Izatez, Donostia Ospitaleak tutore kreditatuak ditu zeregin horretarako. Gainera, gradu-ondoko ikasleen prestaketa osatzeko, hainbat arlotako ikastaroak antolatzen dira: nutrizio ospitalarioa, elektrokardiograma, bihotz-biriketako bizkortzea, historia klinikoa edo laborategia.

Etengabeko prestakuntzaren lekuko dugu urtean ikastaro espezializatuetara 500 pertsona bertaratu izana, eta izaera zientifikoko beste jarduera batzuk ere egin izana, hala nola biltzarrak, jardunaldiak edo sinposioak.

# formación

*La formación continuada en el Hospital Donostia no consiste solamente en un conjunto de cursos, cursillos o seminarios sino también en la organización de actividades relacionadas con la práctica diaria.*

*Por su parte, la docencia postgraduada supone una importante etapa de adquisición de conocimientos para desarrollar en el futuro una especialidad o profundizar en aspectos indispensables que la profesión requiere.Cada curso, más de un centenar de médicos residentes realizan su formación postgrado en el Hospital Donostia, que cuenta para ello con tutores acreditados. Para completar su formación, a lo largo del año se organizan cursos en diferentes materias como nutrición hospitalaria, ECG, RCP, historia clínica o laboratorio.*

*La formación continuada se refleja en la asistencia a cursos especializados con una media anual de 500 asistentes, además de otras actividades de carácter científico como congresos, jornadas o simposios.*

# kalitatea



Kalitatea eta bere etengabeko hobekuntza Ospitaleko Zuzendaritzaren helburu nagusia da. Horretarako, Kalitatearen Kudeaketako Europako Fundazioaren Bikaintasuna (EFQM) hartzen du eredu gisa.

Zuzendaritzak, aldian behin, auto-ebaluaziorako prozesu bat egiten du, EFQMaren diseinuari jarraiki, egoerari buruzko diagnostiko bat egiteko eta estrategia, ekintza-planak eta Ospitalea esandako Bikaintasun Eredu horretara hurbilduko duten helburuak erabakitzeko.

Kalitate Unitatearen eginkizunetako bat da, duela hamarraldi bat baino lehenagotik, auto-ebaluaziorako prozesu honi metodologia mailan babesa ematea.

Batzorde kliniko batzuk ere badira, eta horietan ehunen bat sendagilek eta erizainek hartzen dute parte. Halaber, ospitalean behin-behineko lan-talde multidisziplinario batzuk osatu dira, eta talde horiek prozesu klinikoak eta antolakuntza-prozesuak aztertzen eta hobetzen ari dira.

# calidad

*La Calidad y su mejora continua es el objetivo principal de la Dirección del Hospital. Para ello, tiene como modelo el de Excelencia de la Fundación Europea de la Gestión de la Calidad (EFQM).*

*La Dirección realiza periódicamente un proceso de autoevaluación siguiendo el diseño de la EFQM para efectuar un diagnóstico de situación y decidir la estrategia, los planes de acción y los objetivos que vayan acercando al Hospital a dicho Modelo de Excelencia.*

*Apoyar metodológicamente este proceso de autoevaluación es una de las funciones de la Unidad de Calidad, que existe desde hace más de una década.*

*Por otra parte, coordinadas por la Unidad de Calidad, existen distintas comisiones clínicas en las que participan activamente alrededor de un centenar de médicos y enfermeras. También funcionan en el hospital grupos de trabajo multidisciplinares de carácter temporal para el estudio y mejora de procesos tanto clínicos como organizativos.*



# komunikazioa

Komunikazioko Unitateak barruko baliabideak optimizatzeko helburuarekin, barruko aldizkaria, urteko memoria, harrerako gidak eta jarduteko eskuliburuak argitaratzen ditu; web-orriko informazioa eguneratzen du; eta profesionalentzako ekimenak antolatzen ditu, besteak beste, argazki-lehiaketa eta pinturako erakusketa.

Horiez gain, Komunikazioko Unitateak Ospitaleko jarduera zientifikoari laguntza ematen dio, zenbait argitalpen editatuz, posterrak eta formatu desberdinetako aurkezpenak eginez, eta multimedia-produktuak sortuz.

Komunikazioko Unitateak, besteak beste, ondorengo zerbitzuak ere eskaintezn du: izaera zientifikoko mintegi, ikastaro, jardunaldi eta kongresuetako logistikaren eta idazkaritza teknikoaren antolaketa.

Urtean zehar, pazienteentzako jarduerak bultzatzen dira: zinemaldia eta musika-emanaldiak, esate baterako; ospitalizatutako haurrentzat, berriz, marrazki eta idazketa-sariketa, jende ospetsuaren bisitak, pailazoen eta ipuin-kontalarien emankizunak, eta Eguberrietako programazio berezia.

Komunikazioko Unitateak hedabideen eskakizunak kudeatzen ditu, baina zerbitzuenak ere hedabideei zerbaiten berri eman nahi dietenean, prentsaurrekoen edo elkarrizketen bidez. Komunikazioko Unitateak prentsa-txostena egunero egiten du, eta sei hilabetez behin eta urtero azterketak egiten ditu, Ospitaleak hedabideetan duen eraginari buruz.



# comunicación

*Con el objetivo de optimizar los recursos internos existentes, la Unidad de Comunicación edita la revista interna, la memoria anual, guías de acogida, manuales de actuación, actualiza la información en la web y, entre otras acciones, organiza actividades para los profesionales como el concurso de fotografía o la exposición de pintura.*

*Además, la Unidad de Comunicación presta apoyo a la actividad científica que se desarrolla en el hospital por medio de la edición de distintas publicaciones, la realización de pósteres y presentaciones en diferentes formatos, generación de productos multimedia, etc.*

*La Unidad de Comunicación ofrece también, entre otros servicios, la organización de la logística y secretaría técnica para la celebración de congresos, jornadas, cursos y seminarios de carácter científico.*

*A lo largo de todo el año, se impulsan actividades para los pacientes, como el festival de cine o conciertos de música. Para los niños y niñas hospitalizados se organizan todos los años concursos de dibujo y redacción, visitas de famosos, actuaciones de cuenta-cuentos y payasos, así como una amplia programación lúdica en Navidad.*

*La Unidad de Comunicación gestiona también las solicitudes de los medios de comunicación, así como las de los servicios cuando deseen dar a conocer las noticias que en ellos se generen, a través de ruedas de prensa o entrevistas personalizadas. Igualmente, elabora dossieres de prensa diarios y estudios semestrales y anuales sobre la incidencia en los medios de comunicación del Hospital Donostia.*

# informazio sistemak

Antolakundearen barruan erantzukizunak benetan ikusteko aukera emango duten eta, era berean, kultura klinikoa eta kudeaketa-kultura eraginkortasunez uztartzeko aukera emango duten antolamendu-ereduetarantz jotzen du osasun-antolakundeen kudeaketak.

Antolamendu-eredu horiek, funtsean, honako erronkak bilatzen dituzte: pazientea oinarritzat hartuko duen funtzionamendu-eredurantz bideratzea antolakundeak; profesionalei beren egitekoa garatzeko antolamendu-esparru egokia eskaintzea; eta zerbitzuen aldagarritasunari erantzutea, betiere eraginkortasunari, eragimenari eta kalitateari eutsiz, elementu bereizgarriak baitira.

Bestalde, etorkizunerako bokazioa duten antolakunde berritzaileenek beren jardueren gaineko informazioa etengabe eguneratuta edukitzeko aukera ematen duten tresna eta aplikazioak dituzte, eta erabakiak hartzeko garaian oso lagungarria izango zaie hori. Informazio-sistemak, beraz, ezinbesteko plataforma dira prozesu ekonomikoak eta langileen prozesuak erabateko bermez kudeatzeko, baita antolakundearen beraren jarduerarekin zuzenago lotzen diren beste alderdi guztiak erabateko bermez kudeatzeko ere.

Horrenbestez, Informazio Sistemetako Zuzendariordetzak osasun-zerbitzuetarako eta osasun-arlokoak ez diren zerbitzuetarako azpiegitura teknologiko modernoenetan oinarritzen diren soluzioak eskaintzen eta garatzen ditu. Gure ospitaleko profesionalek, hortaz, beharrezko tresnak dituzte hainbat esparrutan, hala nola aginte-koadrorako sarbidean, Larrialdietan, Harreran edo Anatomia Patologikoen gisako prozesuetako aplikazioetan. Era berean, giza baliabideen kudeaketarako tresnak dituzte (opor-koadroak, dokumentu-kudeaketa, eta abar).

Horri guztiari gaineratu behar diogu Interneteko webgunea edo barruko Intranet sarea zuzenean kudeatzen dela, baita mila ordenagailu baino gehiago –eta dagozkien periferikoak– mantentzen eta eguneratzen direla ere.

# sistemas de información

*La gestión de las organizaciones sanitarias se dirige hacia modelos organizativos que permitan visualizar de forma real las responsabilidades dentro de la organización, y posibiliten a su vez el desarrollo de una convergencia efectiva entre la cultura clínica y de gestión.*

*Estos modelos organizativos persiguen, fundamentalmente, retos como enfocar las organizaciones hacia un modelo de funcionamiento centrado en el paciente, ofrecer a los profesionales un marco organizativo adecuado al desarrollo de su misión y responder a la variabilidad de los servicios a prestar manteniendo, como elementos característicos de la misma, la eficacia, eficiencia y calidad.*

*Por otro lado,las más innovadoras organizaciones con vocación de futuro están orientadas a la implementación de herramientas y aplicaciones que permitan contar permanentemente con informaciòn actualizada de sus actividades a la hora de tomar decisiones. Los Sistemas de Información se han convertido así en la plataforma imprescindible para gestionar con garantía no solamente los procesos económicos y de personal, sino especialmente aquellos más directamente relacionados con la actividad de la propia organización.*

*De esa manera, la Subdirección de Información, proporciona y desarrolla soluciones basadas en las más modernas infraestructuras tecnológicas para dar soporte a servicios sanitarios y no sanitarios para desarrollar sus funciones. Los profesionales de nuestro hospital disponen por tanto de las herramientas necesarias en ámbitos diversos como el acceso al Cuadro de Mandos, aplicaciones en procesos como Urgencias, Admisión, Anatomía Patológica, pero también gestión de los Recursos Humanos en temas como cuadros de vacaciones, gestión documental, etc.*

*A todo ello, hay que añadir la gestión directa de la página web en Internet o la red interna Intranet, así como la actualización y mantenimiento de más de mil ordenadores con sus correspondientes periféricos.*

Begiristain Pasealekua z/g.
20014 Donostia-San Sebastián

**Koordinazioa/Coordinación**
Komunikazioko Unitatea
Unidad de Comunicación